

Lampina

autoreliana



*Makillajez estaltzen dut aurpegia, besteek ikus nazaten.
Panpina da nire maskara.
Aurpegiaren azpian dut gordeta aurpegia.*

“Panpina” antzezlan

Sinopsia

Erika Rooibos aktore ospetsua da.

Gaur bere publiko guztia gonbidatu du antzoki honetara:

iritsi da mundu guztiaren aurrean egia esateko momentua.

Gaur, lehen aldiz, Erika Rooibos-ek maitasuna egingo du bere itzalarekin.

Antzezpena

Antzezlan honetan gai sakonak topatuko ditu ikusleak, umorea eta performance kutsuko aktore lan isikoaz lagunduta: noiz bilakatzen da norbera panpin eguneroko bizitzan? Zer pasatzen da panpin baten burutik? Noiz behar dugu begiratu gaitzaten, eta zergatik? Emakume oro da panpina? Besteen begiradak egiten gaitu panpin?

Edozein pertsonak du maitatua izateko beharra. Baina zertarako gaude prest hori lortzearren? Beldurrak, inguruko iritziarekiko dependentzia... Besteen begiradaren aurrean panpina izatea menpekotasun keinu bat da, ala askatasun adierazpen gorena?

Erika Olaizola aktorearen bulkadaz sorturiko antzezlan da *Panpina*. Oier Guillan idazlearen kanpo begirada eta Leire Arenas artistaren zentzu espaziala baliatuz, hiruak elkartu eta sortze prozesua abiatu zuten. Bide horretan Kulturaz kooperatibak emandako laguntza izan zuten ezinbesteko bultzada.

Panpina oholtza gainean Erika Rooibos aktorearen argilunak erakutsiko dituen lana da, baina era berean, edozein pertsonak izan dezakeen onarpen beharraren ertzak modu intimo bezain probokatzailan agerian jarriko dituena.

Fitxa Artistikoa

Panpina antzezlanaren hiru sortzaile hauen arteko sormen prozesuan sortu da:

Erika Olaizola

Zuzendaritza eta aktore lana

Oier Guillan

Kanpo begirada eta idazketa orokorra

Leire Arenas

Kartela, eskuorria eta planteamendu espaziala

PROMOZIO-ARGAZKIAK

Yuri Agirre

KONPAINIA

Kamikaz kolektiboa

LAGUNTZAILEAK

**Kulturaz Azpeitiko Kultur Mahaiaren Kooperatiba
Azpeitiko Udala**

Parte Hartzaileak



Erika Olaizola Eizmendi (1989 Azpeitia)

Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan Errealizazio ikasketak egin ondoren, Donostiako Arte Eszenikoen Eskolan ikasi zuen hiru urtez. Orduztik formatzen jarraitzen du.

Artedrama, Le Petit Théâtre de Pain eta Dejabu Panpin Laborategia taldeekin Euskal Herrian zehar biran ibili zen 'Francoren bilobari gutuna' antzezlanarekin. Bere lanik berezietakoa, Xake produkzioaren "Lur" antzezlan. Sarituak izan ziren "Zu ta ni" eta "Eguzkilore" pieza laburren sortzailea. 7 urtez, Azpeitiko Emakumeen Antzerki taldeko kide izan zen, hainbat antzerki obretan parte hartuz.

Kamikaz Kolektiboaren sortzaileetako bat, "Euli-giro" antzezlan, Z U L O laburmetraia eta Käffka antzezlanekin.

Zinea ere egin du. 'Los tontos y los estupidos' Roberto Caston zuzendariarekin eta 'Oreina' Koldo Almandozekin. Telebistan Goenkale seriean ere aritu da. Oraintxe, grabatu berri den "Kartzela" webseriean aktore lanak egin ditu.

Hainbat urtez, Deban, gazteen eta helduen antzerki irakaslea ere bada.



Oier Guillan Bermudez (Donostia-Orereta, 1975)

Idazlea, kazetaria, antzerkigilea.

Hainbat liburu kaleratu ditu poesia, narrazioa eta antzerkiaren arloan, azkenak Zauri Bolodia (Txalaparta, 2018), Mr. Señora (Txalaparta, 2016), Elkartasun basatia (Susa, 2013), Hura ez da lekua (Txalaparta, 2012), Herio heroi/Arra.Arraroa (Artezblai, 2010), Eskuen sustraiak (Susa, 2009) eta Ate hautsiak (Arabako Foru Aldundia, 2008).

2008tik Metrokoadroka kolektiboko partaide da, bertako kideekin taularatu ditu aktore zein zuzendari gisa Hugo, nor dada Emmy?, Miss Karaoke, Poza, Su izan nahi, Salto eta Zertarako Hegoak bezalako lanak. Bertako kideekin performancea, poesia fisikoa eta umore absurdoa landu ditu batez ere. Kode horietan oinarrituta Tartean dauden gorputzak ikastarora ematen jardun da azken urteetan, Javier Barandiaranekin batera.

L'Alakran (Cromlech), Dejabu panpin laborategia (Gure bide galduak, Arastoak), Anakrusa (Tempus-i), Kamikaz kolektiboa (Kafka) eta Rouge Elea (Ceci est la couleur de mes rêves /Hau da nire ametsen kolorea) taldeekin kolaboratu du, eta Gabrielen lekua eta Nola belztu behar zuria (Bide Ertzean taldearekin) emanaldi hibridoetako kide izan da.

1996. urtetik Mikelazulo kultur elkarteko kide da; bertan urte luzez laborategi lanak egin ditu, arte diziplina ezberdinak uztartuz. Besteak beste, proiektuak garatu dituzte Senegal-Cassamance, Ekuador, Bosnia eta Saharan.

Antzerki eta literatura arloko sari ugari jaso ditu, azkenak 2018an: Cafe Bar Bilbao antzerki labur saria Ero, ia lanagatik, eta Donostia Hiria Literatur Saria antzerki arloan Aire ikusezina lanagatik.



Leire Arenas Belamendia (Azpeitia, 1993)

Irudi diseinatzailea/ilustratzailea

Leioan Arte Ederretako fakultatean ikasia, Sorkuntza eta Diseinuan graduduna, Ilustrazioan aipamenarekin. Geroztik zeramika, enkoaternazioa, animazioa, ilustrazioa eta teknika grafiko ezberdinen arloan formatzen jarraitu du.

Matadero Ekintzak-ek Azkoitiko Matadeixen antolaturiko kontzertu, zine emanaldi eta bestelakoetarako kartelak eta flyer iragarleak egiten dihardu, bakarka, edo Urssy Baterna arte kolektiboko kideekin elkarlanean.

Üther musika taldearen lehen eta bigarren disken diseinuen egilea, Kaluse musika taldearen bigarren diskaren diseinuarena, eta ZeOnda antzerki taldearen *Itsasoari Negar* obraren kartelarena.

Ikusentzunezkoen arloan, Izibene Oñederra zinegile azkoitiarraren *Lursaguak (Escenas de Vida)* animaziozko film laburreko lan taldeko partaide izana, postprodukzio ikuskaritzan.

Online portfolioa: www.behance.net/leirearen

Behar Teknikoak

ESPAZIO ESZENIKOA

5m x 4m (Malgua, espazioaren arabera aztertzeko)

SOINUA

Aretora egokitutako PA

Monitore bat

Sarrera stereo ordenagailu batentzat (minijack)

Eskuko mikrofono bat

Mikro oin bat

IRAUPENA

60 min.





Kontaktua

Erika Olaizola - 685 78 69 20 / kamikazkolektiboa@gmail.com